

EH Bilduk salatu du Laudioko hiltegiaren itxierak «kinka larrian» utzi duela eskualdea, zerbitzuei dagokienez

Itxiera «erabaki politikoa» dela salatu dute: Laudioko hiltegia itxita, «eskualdearentzat eta sektorearentzat hain beharrezkoa den hiltegi-zerbitzuaren kudeaketa publikoari uko egin zaio»

Araba | 2022-04-12. EH Bildu Araba batzarkide taldeak salatu du Laudioko hiltegia ixteko erabakia «erabaki politikoa» dela, eta lehen sektoreari bizkarra emanda hartu dela, Aiaraldea abeltzaintzari emandako eskualdea izanik. Eva Lopez de Arroyabe EH Bilduko batzarkideak adierazi duenez, «lurralde guztietatik animaliak hara sakrifikatzeraz eramaten zituztenak salduta utzi ditu hiltegiaren itxierak».

Halaber, taldeak salatu du erabakia gardentasunik gabe hartu dela. Lopez de Arroyaberen arabera, gardentasun falta hori agerian geratu zen joan den ostiralean, Laudioko Dolumin Barikuaren ospakizunean, azokan ez baitzen abererik izan, lehen sektorearen protesta gisa. «Bai egin zena, ordea, manifestazio handi bat izan zen, sektoreak eskualdean duen funtsezko papera aldarrikatzeko eta aurrean duen egoera gero eta zailagoa dela salatzeke: alde batetik, kostuen igoera, eta bestetik, salmenta prezio baxuak», adierazi du Lopez de Arroyabek.

Berez zaila den egoera bati gehitu behar zaio hiltegi-zerbitzu bakarria itxi izana, ez bakarrik eskualdekoa, baita Araba osokoa ere, eta, beraz, «tokiko abeltzain askorentzat egoera jasanezina bihurtzen ari da».

EH Bilduk gogorarazi du bere ekimena izan zela Eusko Legebiltzarrean Aiaraldeari buruzko ponentzia bat eratzea, eta han erabaki zela hiltegiaren bideragarritasuna aztertzea, baina ponentzia horren azken irizpenean proposamena desagertu egin zela.

EH Bilduren ustez, lurraldean sakrifizio zerbitzu deszentralizatu bat behar da, «bertako elikagaien ekoizpena eta kontsumoa bermatzeko eta Arabako abeltzaintza sektorearen bideragarritasuna bermatzeko». Zerbitzu hori sektorearen eta administrazioen artean sustatu beharko litzateke, kudeaketa publikoa ziurtatuz. Horregatik, Aiaraldean nekazaritzako elikagaien poligono bat martxan jartzea proposatu du EH Bilduk, lurraldeko abeltzaintza-sektoreari zerbitzua emango dion sakrifizio-gune batekin.

EH Bildu denuncia que el cierre del matadero de Laudio deja en una situación «delicada» a la comarca en cuanto a servicios se refiere

Denuncian asimismo que el cierre es una «decisión política»: con el cierre del matadero de Laudio «se renuncia a la gestión pública del servicio de matadero tan necesario para la comarca y el sector»

Araba | 12-04-2022. El grupo juntero EH Bildu Araba ha denunciado que la decisión del cierre del matadero de Laudio es un «decisión política» que se ha tomado de espaldas al primer sector, en una comarca eminentemente ganadera como es Aiaraldea. «Un cierre que abandona a su suerte a quienes desde todos los territorios llevaban animales allí a sacrificar», ha declarado la procuradora de EH Bildu Eva Lopez de Arroyabe.

El grupo denuncia asimismo la falta de transparencia en la toma de la decisión. Según Lopez de Arroyabe, esa falta de transparencia quedó patente el pasado viernes, en la celebración del Viernes de Dolores en Laudio, ya que en la feria no hubo animales como protesta del primer sector. «Lo que sí que se celebró fue una gran manifestación reivindicando el papel esencial del sector en la comarca y la cada vez más difícil situación a la que se enfrenta. Por un lado, la subida de costes, y por otro, los bajos precios a los que se vende», ha manifestado Lopez de Arroyabe.

A una situación ya de por sí difícil, se añade el cierre del único servicio de sacrificio, no solo de la comarca, sino también de todo Araba, por lo que «la situación para muchas personas ganaderas locales, se hace insostenible».

EH Bildu recuerda que fue iniciativa suya la constitución de una ponencia sobre Aiaraldea en el Parlamento Vasco, y que allí se acordó estudiar la viabilidad del matadero, pero que en el dictamen final de esa ponencia, la propuesta desapareció.

EH Bildu entiende que es necesario un servicio de sacrificio descentralizado en el territorio para garantizar la producción y el consumo de alimentos locales y con ello garantizar la viabilidad del sector ganadero en Araba. Un servicio que debería promoverse de forma compartida entre el sector y las administraciones asegurando una gestión pública. Por eso, desde EH Bildu se propone la puesta en marcha de un polígono agroalimentario en Aiaraldea con un espacio de sacrificio que dé servicio al sector ganadero del territorio.